

Kirolak 2019

Urtezahar-krosa

Hotz, hotza lagun izan zuten 2018ko urtezahar-kroseko korrikalariak. 100 lagun inguruk hartu zuten parte guztira Urepele elkarteak antolatutako lasterketan, eta podiumak honela osatu ziren: 7 eta 12 urte artekoetan, nesketan Aiara Agirrezabala, Barbara Isturiz eta Izaskun Zubeldia izan ziren lehenak helmugan, hurrenez hurren; eta mutiletan Hodei Lobo, Martin Zubillaga eta Haritz Martin. 13 urtetik gorakoetan, berriz, emakumezkoetan Arantxa Atxukarro, Amaia Azkue eta Olaia Garaiburu izan ziren azkarrenak; eta gizonetzkoetan Iban Agirrezabala, Ion Azpiroz eta Eneko Arrospide. Senior-mailan lehen sailkatuak Arantxa Atxukarro eta Aitor Etxarren izan ziren, eta taldekako sailkapenean Iban Agirrezabala, Julen Agirrezabala eta Amaia Azkuek osatutako hirukoa izan zen garaile.

II. Negutrail mendi-lasterketa

Otsailaren 3an, sasoiko eguraldiarekin, negu-giro betean egin zen Negutrail mendi-lasterketaren bigarren edizioa. Plazatik abiatu eta Urdelar, San Lorentzo eta Ipuliñon barrena, 16,3 kilometro eta 963 metroko maldako ibilbidea osatu behar izan zuten korrikalariak. 300 lagun zeuden ize-



Urtezahar krosa.



Urtezahar kroseko irabazleak.

YEREGI ANAIAK

ERREMENTARITZA - ITXITURAK - ATEAK

HERRERIA - CERCADOS METALICOS - PUERTAS





Tel./ Fax: 943 67 18 73
Tolaretxea, 2 - 20492 BERASTEGI (Gipuzkoa)

yeregianaiaak@hotmail.com
www.yeregianaiaak.com



Negutrail lasterketako une bat, eta, behean, irabazleak.

Ezin ahaztu ia 100 laguneko herritar-taldea ibili zela lanean boluntario, lasterketan, aurretik eta ondoren

na emanda, antolakuntzak gehinenez onartutako parte-hartzaile kopurura iritsita; 261 korrikalarik ekin zioten lasterketari 10:30ak jo zutenean, eta 254k amaitu zuten lasterketa. Sarah Ugarte donostiarra, Ainhoa Jauregi urnietarra eta Tanit Perez de Lezeta donostiarra izan ziren lehenak helmugan hurrenez hurren emakumezkoetan; eta gizonezkoetan Hassan Ait Chaou billabonatarra, Iban Agirrezabala berastegiarrar eta Raul Amatriain arraizatarra. Lehen berastegiarrak Iban bera eta Arantxa Atxukarro izan ziren, beste behin. Eta ezin ahaztu ia 100 laguneko herritar-taldea ibili zela lanean boluntario, lasterketan bertan, aurretik eta ondoren.

Aldin mendi-elkartearen irteerak

2018-19 denboraldian 4 mendi-irteera antolatu ditu Aldin mendi-elkartek. Irailaren 23an Aralarrerako deia egin zieten herriko mendizaleei: Tutture



(1.282 m) mendirako plana eskaini zuten ume eta gurasoentzat, Beasti guraso elkartearekin elkarlanean, eta helduen-zat Balerdi (1.193 m) mendirakoa.

Azaroaren 10ean Aiako Harrian (837 m) izan ziren eta martxoaren 23an Baztango Irubelakaskoa (970 m) mendian. Azkena, berriz, ekainaren 29an Hues-



Aldin mendi-elkartekoak irailean Ttutturren izan ziren eta ekainean Riglosko mailoetan.

cako Riglosko mailoak (1.045 m) izan dituzte bisitaleku.

Eskola-kirola

2018-2019 denboraldian LHko 1. mailatik DBHko 2. mailara arteko 60 gazte txo ibili dira eskola-kirolean, 21 neska eta 39 mutil. 6 talde osatu dira, iaz baino bat gehiago; mutil infantilen taldea izan da berritasuna. Hartaz gain, mutil benjaminena, neska benjaminena, 5. mailako mutil alebinena, 6. mailako mutil alebinena eta neska alebinena izan dira lehian.

1. eta 2. mailako neska-mutilak ere ibili dira, baina lehiatu behar izan gabe. Saskibaloia, eskubaloia eta areto-futbola landu dituzte. 3. eta 4. mailako neska-mutilek ere kirol berak landu dituzte, bi taldetan banatuta; baina hauek izan dute lehiatzeko aukera, larunbatetan Tolosaldeko beste neska-



Ikasturte honetan eskola-kirolean ibili diren neska-mutilak, beren entrenatzaileekin.

mutil batzuekin batera. Emaitza onak lortzea baino gehiago, ondo pasatzea eta talde-jokoa bilatzea izan dute hel-

buru.

5. eta 6. mailakoak, berriz, 3 taldeetan banatuta aritu dira, saskibaloian eta areto-futbolean; eta, esan behar da 2 talde bikain aritu direla denboraldi osoan zehar. Neska alebinen taldeak ez du partidurik galdu 9 hilabetetan, eta 5. mailako mutilen taldea ere antzera. Biak ala biak Gipuzkoako txapelketara sailkatu ziren. Mutilen taldeak saskibaloian finalerdietan esan zion agur txapelketari. Neskak areto-futbolean bai, finaleraino iritsi ziren, eta Oñatiko talde baten aurka irabazita, Gipuzkoako txapeldun geratu ziren. Bestalde, alebinen bi talde hauek areto-futbolean Eguberri zein San Joan txapelketan ere hartu dute parte eta neskak izan dira





Ane Urkizu eta Lierni Gartziarena Master Cup Txapelketan.



Aurten esku-pilotan ibili diren neska-mutilen taldea, beren entrenatzaileekin.



San Joanetan udaletxeko karreapean jokatu zuten pilotariak.



Ataria pala eta esku-pilota txapelketetako finalak Berastegin.

urrutien iritsi direnak, bi txapelketak irabazi baitituzte.

Urtea borobiltzen asmatu duen beste taldea mutil infantilena izan da. DBH ikasketak Tolosan egiten ari diren arren, areto-futbolearen herrian jarraitu nahi izan dute eta herriko 10 gazte elkartu eta Gipuzkoako ligan

aritu dira urritik maiatzera. Bigarren amaitu dute liga eta lehen 4 taldeen arteko ligaxkatik finalera pasa ondoren, Ibarako Uzturpe Lauburu taldearen aurka 4-2ko emaitzarekin txapeladun izan ziren berastegiarrak, ezustekoa emanez. Garaipen horrek Euskadiko eta Espainiako txapelketetan parte

hartzeko aukera eman zien. Euskadikoan bigarren egin zuten, eta ekainaren 8 eta 9an Valladoliden jokatu zen Espainiakoan maila handiarekin egin zuten topo. Jokaturako 3 partiduak galdu zituzten; baina, hala ere, asteburu ederra eta sekulako esperientzia bizi izanda, pozik itzuli ziren Berastegira,



JAKINTZABIDEKO
 KIROLETAKO
 BASURDE ELKARTEA
 BERASTEGI



Naroa Zubiria jokoan.

lanean serio segi behar denaz konben-
tzituta.

Esku-pilota

21 lagun ibili dira esku-pilotan aurten, 2 neska eta 19 mutil; aurrebenjaminetan, 1. eta 2. mailako 4 mutil; benjaminetan, 3. eta 4. mailako 2 neska eta 6 mutil; eta, alebinetan, 5. eta 6. mailako 9 mutil. Urritik apirilera bitarte Tolosaldea mailan lehiatu dira, 3 bikote benjaminetakoak eta 2 bikote eta hirukote 1 alebinetakoak. Ohiko ligan jokatzeaz gain, Eguberrietako txapelketan eta Ataria txapelketan hartu dute parte; eta, aurreko postuetara iristea lortu ez badute ere, lan ona egin dute guztiek ere. Aipatzekoa da aurten Atariako pala eta esku-pilota txapelketetako finalak Berastegin jokatu zirela ekainaren 29an. Herritarren ordezkaritzarik ez



Areto-futbolean txapeldun izan diren neska alebinak. Ezker-eskuin eta goitik behera: Mireia Barriola (entrenatzailea), Izaskun Zubeldia, Izaro Vidal, Izaro Gartziaarena, Naroa Goikoetxea, Alaitz Zuriarrain, Aiara Agirrezabala eta Kira Pascual.



Areto-futbolean txapeldun izan diren mutil infantilak. Ezker-eskuin eta goitik behera: Hodei Lobo, Alain Claudio, Julen Otxandorena, Martin Zubillaga, Oihan Lobo, Iraitz Garaiburu, Beñat Loidi, Itoitz Agirretxe, Gorka Esnaola, Oinatz Lasarte eta Oier Arabaolaza.

DENDA BERRI
okindegia * janaridenda



OGI BERRI

Maintzenea 12 667261923 - 943683567

zen izan, baina eskualdeko pilotari gazteak ezagutzeko eta haien jokoaz gozatzeko aukera ederra izan genuen. Eta, bukatzeko, herri mailan San Joanetako txapelketak izan ditugu, banaka udal-letxeko karreapean eta binaka Ipuliño frontoian. Maila txukunean aritu dira pilotari gazteak.

Bestalde, Ane Urkizu Lasartek eta Lierni Gartziaarena Artolak 2018ko urrian Emakumezkoen Master Cup txapelketan parte hartu zuten. Eskuz banakako pilota-txapelketa izan zen eta partidu politak jokatu zituzten biek.



Iñaki Urkizu, Irungo Real Unioneko jokalaria.

Gasteizko kanporaketan animatzen izan zituzten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkie bikoteak.

Areto-futbola

Narrea Zubiria Amundarainek Ordi-ziako taldean jokatu du 18-19 denboraldian ere, areto-futboleko bigarren mailan. Kopako eta Euskadiko irabazle izan ziren, eta ligan ere lehenengo geratu ziren; hala ere, ez ziren irabazleak izan sailkapen horretan geratutako lehengo bi taldeen arteko partidua galdu egin baitzuten.

Gipuzkoako liga Senior mailan jokatu dute Lierni Gartziaerenak eta Olaia Lizartzak Ibarra Lauburu taldean. Klub berean ibili da Aimar Zubillaga ere, Ohorezko Jubenil mailan. Asturias, Errioxa, Kantabria eta Euskal Herrian zehar jokatu dituzte partidua, eta 6. postuan amaitu dute denboraldia.

Futbola

Iñaki Urkizuk Irungo Real Union taldean egin du 2018-2019 denboraldia ere, futbol profesionaleko Bigarren B Mailan. Liga sailkapeneko 16. postuan amaitu du taldeak eta azken unean eutsi dio mailari, jaitsiera saihestuta. Es-



Ion Azpiroz Euskal Herriko txapeldun da gaur egun ultratrailetan, Leitzako Euskal Herria Mendi Erronka irabazita eta Espainiakoan hirugarren.

kuin hegaleko futbolari berastegiarrak, bere aldetik, bere azken denboraldia osatu eta agur esan dio futbol profesionalari, 10 urteko ibilbide luze eta opa-roaren ondoren.

Bestalde, Tolosa Futbol Klubean hainbat berastegiarrak jokatu dute denboraldi honetan ere:

Ander Zubillagak Ohorezko mailan jokatu du. Oso denboraldi ona egin dute, eta ondorioz 3. mailara igotzea lortu dute.

Egoitz Agirrezabala bi taldetan ibili da: Jubenil nazionalean eta Jubenilen 1. mailan. Azken talde honekin maila igotzea lortu dute; bestearekin, berriz,

mailari eutsi diote.

Territorial mailan jokatu du Irati Re-kondok, eta 6. postuan geratu da taldea. Kopan, bestalde, final aurrekoetan kanporatu ziren.

Ohorezko Kadeetan jokatu du Julen Sarasolak, eta 12. postuan geratu dira.

Ane Goikoetxeak emakumezkoen Ohorezko Kadete kategorian jokatu du, eta 5. postuan geratu da haren taldea.

Badira beste bi futbol-jokalaria berastegiarrak beste bi taldetan ibilitakoak: Mireia Barriolak Goierri Berri taldearekin Euskal Liga jokatu du, eta 5. geratu dira; eta Lekunberriko Beti Kozkor taldean ibili da Alaitz Etxarren, Infantil-





DesafiOSOmiedo ultratrailean jokatu zen Espainiako txapelketa, eta taldekakoan euskal korrikalariak izan ziren txapeldun, tartean Ion bera.



Arantxa Atxukarro, emakumezkoetan garaile.

Kadete kategorian, Nafarroako ligan jokatu dute eta 7. postuan geratu da haren taldea.

Mendi-lasterketak

Ion Azpiroz denboraldi bikaina egi- ten ari da aurten mendi-lasterketetan. 2018ko abuztuan denboraldia amaitzeko urteko erronka nagusi zuen *Mont Blanc-eko UTMB Ultratrail* ospetsuan (171 km, 10.300 m-ko malda) lasterketa uztea erabaki zuen 140. kilometro inguruan, ezina gailenduta. Orduetik, ordea, beste era batera doazkio kontuak Ioni. Besteren artean, maiatzaren 4an *Valle de Vio* ultratraila (60 km eta 3.600 m-ko malda) irabazi zuen Huescako Buerba

herrian, 6 ordu 50 minutu eta segundo 1eko denbora egin eta errekorra 30 minutuz hobetuta; eta Euskal Herri mailako aparteko bi mendi-lasterketa ere irabazi ditu: maiatzaren 18an Leitzako *Euskal Herria Mendi Erronka* ultratraila (67 km, 7.200 m-ko malda) irabazi zuen 6 ordu 45 minutu eta 32 segundoko denbora eginda; eta uztailaren 13an *Goierriko Bi Handiak Goierri Trail* lasterketan nagusi izan zen lasterketako 88 km-ak eta 6.000 m-ko malda egiteko 10 ordu minutu 1 eta 53 segundo pasatuta eta orain arteko marka 8 minutuz onduta. Uztailaren 27an, berriz, Espainiako txapelketa erabakitzeke balio izan zuen Asturiaseko *DesafiOSOmiedo* ultratrail-

lean (85 km, 10.000 m-ko malda) 3. egin zuen 9 ordu 29 minutu eta 28 segundoko denborarekin. Eta, bukatzeko, abuztu bukaeran, lehengo urtean atera gabe utzitako arantza ateratzeko aukera berria du Ionek Chamonix aldean, *Mont Blanc-eko UTMB Ultratrail*-aren hurrengo edizioan.

Bestalde, aipatu ohi ditugun inguruko beste mendi-lasterketa batzuetan aurten ere izan da berastegiaren ordezkariarik: ekainaren 2an egin zen *Zegama-Aizkorri* mendi-maratoian Jon Zubillaga izan genuen 334. postuan (7 h 07 min); Tolosako T3T maratoian Xabier Azpiroz 145. postuan (6 h 16 min 10 seg) eta Jon Zubillaga bera 151.



IDIAZABAL

GAZPIO

Jose Inazio Ugartemendia
Gazpio baserría, Izotzalde 21
20492 Berastegi

T. 606.199.080

ARTZAI GAZTIA

Ardi latxaren esne gordinez egindako gazta ondua





Mikel Plazas eta Olaia Plazas lehiatzen.

Antzuolan bi berastegiarrak igo ziren podiumera, Beñatek lehenengo postua lortuta eta hirugarrena Mikelek

postuan (6 h 22 min); eta, T2T maratoni erdian Julen Agirrezabala 217. postuan (3 h 42 min 11 seg), Amaia Azkue 218. postuan (3 h 42 min 12 seg) eta Maialen Gartziarena 263. postuan (4 h 22 min 44 seg).



Beñat eta Mikel Antzuolan lehenengo eta hirugarrenak.

Atletismoa

Euskal Herriko Kirol-probako txapelketako ligan lehiatzen hiru urte jarraian ibili ondoren, lortu zuten 2018an txapelak etxera ekartzeko Arantxa Atxukarrok, aurreko hirugarren eta bigarren postuak gaituta. Saillapen orokorrean 9. egin zuten eta emakumezkoetan irabazle izan zen 1.061,99 punturekin.

BTT jaitsiera

Beñat Egialde eta Mikel Olaetxea Euskadiko Open BTT jaitsieran ari dira





Limousin Oria txirrindulari-taldea

parte hartzen, 23 urtez azpiko mailan biak. Maiatzaren 18an, Igantzina, izan zen lehenengo jaitsiera, eta 6. geratu zen Mikel; Beñat, berriz, erori egin zen eta ez zuen bukatzerik izan. Hurrengo jaitsieran, Antzuolan uztailearen 13an, bi berastegiarrak igo ziren podiumera, Beñatek lehenengo postua lortuta eta hirugarrena Mikelek.

Eskia

Urtarrilaren 26an eta 27an, Belaguan, iraupen-eskiko Euskadiko txapelketak lehiatu ziren (skating eran eta klasiko eran). Gizonezkoen U-18 mailan, Mikel Plazas izan zen Euskadiko txapeldun iraupen-eskiko skating eta klasiko estiloan (10 km). Olaia Plazasek, berriz, emakumezkoen U-16 mailan urrezko dominak irabazi zituen bi estiloetan.

Otsailaren 3an, iraupen-eskian

Mikel Plazas txapeldunorde izan zen distantzia luzeko Espainiako txapelketan gizonezkoen U-20 mailan. Txapelketa Baqueirako Marxa Beret lasterketan (21 km) lehiatu zen. Ondorioz, espainiar selekzioarekin Esloveniako Planica eski-estazioan otsailaren 8tik 10era Europako Kopako probatan lehiatu zuen: sprint lasterketan, distantzia luzean, klasikoan eta skatingean. Bigarren postua lortu zuen Mikelek proba guztietan: sprintetan eta distantzia luzean, 1 segundoko aldearekin; skatingean 4 segundokoa; eta klasikoan 1 minutu eta 15 segundokoa.

Martxoaren 22tik 24ra, Candanchun, klasiko eran, skating eran eta errelebotan iraupen-eskiko Espainiako txapelketa izan zen. Gizonezkoen U-20 mailan, Mikel Plazasek klasikoan eta skatingean zilarrezko bi domina lortu

zituen (10 km); baita brontzekoa ere Senior mailako errelebotako mixtoan. Emakumezkoen U-16an (5 km), klasiko eran Olaia Plazasek brontzeko domina lortu zuen, eta skating eran Espainiako bigarren geratu zen.

Txirrindularitza

Limousin Oriako taldean egin dute denboraldia Arkaitz Garmendia, Urko Vidal, Izaro Vidal, Maddi Saizar eta Ioritz Saizar berastegiarrak. Arkaitz Kadete 2. mailan ibili da, eta behin lortu zuen bigarren postua, Zestoan. Urko, berriz, Infantil kategorian lehiatu da, eta denboraldi bikaina egin du: 12 aldiz izan da lehenengo, behin bigarren eta beste behin hirugarren. Haren arrebak, Izarok, Gipuzkoako taldekako erlojupeko txapelketa irabazi zuen eta Tolosako karreran bigarren egin zuen.

harategia
ULi
urdaitegia

Kale Nagusia 2-3
20.492 Berastegi
T. 943 68 40 51